


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2004KO EKAINA

Euskal AEko industri jarduera %6,1 hazi zen 2004ko ekainean

2004ko lehenengo sei hilabeteko bilakaerak %4,3ko hazkundera izan zuen, 2003ko aldi beraren aldean.

2004ko ekainean, %6,1 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, balio absolututan, 2003ko hil beraren aldean, EUSTATEk landutako datuen arabera. Balio homogeneotan, urte arteko aldakuntza %3,6ra iritsi zen. 2004ko lehenengo sei hileko hazkunde metatua %4,3an kokatu zen, balio absolututan, aurreko urteko aldi beraren aldean; eta %3,4ko hazkundera izan zen, urte arteko alderagarritasuneko balio egokituetan.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1998-2004



Iturria: EUSTAT

2004ko ekainean, urte arteko aldakuntzarik positiboenak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zitzaizkien: *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%26,1), *material elektrikoa* (%14,7) *zurgintza* (%9,3) eta *kautxua eta plastikoa* (%9,0) arloei, besteak beste. Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan zituzten: *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-25,0), *ez-metalezko industria* (%-19,9), *ehungintza eta jantzigintza* (%-10,6), *bestelako manufakturak* (%-5,2), *larruaren eta oinetakoen industria* (%-5,1) eta *petrolioaren fintzea* (%-0,3) arloek, batik bat.

Urteko lehenengo sei hilabeteetan, aurreko urteko aldi beraren aldean, hazkunde-tasa handienak sektore hauei egokitu zitzaizkien: *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%23,8), *petrolioaren fintzea* (%22,5), *material elektrikoa* (%8,8), *kautxua eta plastikoa* (%5,8) eta *garraio-materiala* (%4,1) arloei, besteak beste. Tasa metaturik negatiboenak, berriz, honako hauek izan zituzten: *ez-metalezko industria* (%-14,2), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-13,5), *larruaren eta oinetakoen industria* (%-13,2) eta *bestelako manufakturak* (%-5,6) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapen berria, 2004ko ekainean, nabarmen igo zen *energiaren* urte arteko tasa (%10,3) eta apalago *ekipo-ondasunena* (%7,0), *bitarteko ondasunena* (%5,6) eta *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrena* (%6,6). *Kontsumo-ondasun iraunkorrena* (%2,6) berriz, apur bat igo zen eta beraz, *kontsumo-ondasunak*, osotara, %5,3 igo ziren.

Egutegiaren eragina zuzenduta, energiaren urte arteko hazkundera %8,9koa izan zen, ekipo-ondasunak %4,4 hazi ziren balio homogeneotan eta bitarteko-ondasunak %3,3ko tasara iritsi ziren. *Kontsumo-ondasunek* %2,7ko hazkunde-tasa portu zuten (*kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* %4,3 eta *kontsumo-ondasun iraunkorrek* %-0,5).

Urteko lehenengo sei hilabeteetan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, *energiak* balio absolututan %23,4ko hazkundera metatu zuen, *bitarteko ondasunek* %3,2koa eta *ekipo-ondasunek* %2,0koa. *Kontsumo-ondasunak* %0,6 igo ziren eta honela banatu ziren: *kontsumo-ondasun iraunkorrek* %-2,3ra iritsi ziren eta *ez-iraunkorrek* %2,1era.

Lurralde historikoka, Indize Orokorren urte arteko bilakaerek erritmo desberdinak izan zituzten: balio absolututan, %13,3 hazi zen Araban, %6,4 Bizkaian eta %1,7 Gipuzkoan. Urteko lehenengo sei hilabeteetan hazkunde metatuaren tasa handienak Arabari (%8,1) egokitu zitzaizkion, ondoren Bizkaiari (%3,7) eta azkenik Gipuzkoari (%2,6).

Taula: 2004ko EKAINA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	2004		2003	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	6,1	3,6	2,5	0,0
Araba	13,3	10,4	0,3	-2,3
Bizkaia	6,4	4,2	1,2	-1,0
Gipuzkoa	1,7	-0,8	5,4	2,6
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	5,3	2,7	1,7	-0,9
-Kontsumo-ondasun iraunkorrek	2,6	-0,5	-1,5	-4,5
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek	6,6	4,3	3,4	1,1
Ekipo-ondasunak	7,0	4,4	1,2	-1,2
Bitarteko ondasunak	5,6	3,3	0,6	-1,6
Energia	10,3	8,9	19,9	17,8

(*) egutegiaren eragina zuzenduta

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 017 514. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es